

KOMUNIKABIDEEN LANTALDEA: PROPOSAMENA

Bilbo, 2000-X-28

Miren Azkarate

1. Osaera

1999ko otsailean Baionan egin genituen Bame Jardunaldietan irakurri nuen *Jagon saila: gaurko egitasmoak* izeneko txostenean, Jagon sailean bi batzorde egin, eta hauen barruan lantaldeak sortzeko proposamena aurkeztu nuen. Baionan onartutako antolamoldearen ondorio dira Euskalkien lantaldea eta Komunikabideena. Azken honek, 2000ko ekainaren 16an egin zuen sorrerako bilera, hauek izanik han bildu zirenak:

Xabier Onaindia, *Bizkaia Irratiko* ordezkaria

Irene Arraras, *Euskaldunon Egunkarikoa*

Mila Eizmendi eta J. L. Agirretxe, Topagunekoak

Asier Larrinaga, EITBkoa

Txema Auzmendi, *Herri Irratikoa*

Onintza Irureta eta Katixa Garate, *Argiakoak* (ezin etorria adierazi zutenak)

Iñaki Iñurrieta, *Zabalik* astekariko ordezkaria (ezin etorria adierazi zena).

Argi zegoen hasieratik Iparraldeko jendea falta zela, eta ahaleginak egingen ari gara hori osatzeko.

Euskarazko hedabideetako hizkuntza arduradunen foro iraunkorra sortzea genuen helburu lantalde hau antolatzean. Euskaraz lanean jardutean sortzen zaizkien arazoak plazaratu, elkarren artean eztabaidatu eta irtenbide bateratua emateko bidea eskaini nahi genien, eta kezka edo buruhauste den edozer eztabaidatzeko gunea.

Bi ordu eta erdiko bileraren ondoren, hauek izan ziren ondorioak:

1) Banaketa-zerrenda berezia sortzea Jagoneten barruan, zerrenda murritua, lantalde horretako kideentzat eztabaidagune egokia izan zitekeelakotan.

2) EITBek eta Euskaldunon Egunkariak dagoeneko duten materiala aprobetxatuz, artxibaturik dituzten akatsen zerrendako 20 kasu aukeratu eta lantaldearen esku jarri. Ondoren, guztion artean eztabaidatu eta ikusiko da hedabide bakoitzak proposatutako irtenbidea egokia den ala ez.

3) Kazetaritzan sarrien agertzen diren erdal esamoldeen eta euskaraz eman zaien ordainen bilketa-lana egiten hasi. Gero guztien artean erabakiko litzateke zer hobetsi, guztiek ordain bakar hori erabiltzeko (eta Euskaltzaindiak ikusiko luke hobetsitako esamoldea onartzekoa den ala ez).

Uste dut dagoeneko antolatua dagoen lantalde honek (Iparraldeko kide pare bat gehituaz) ez lukeela arazo handiegirik izango oinarriko terminoen zerrenda aurkezteko, batez ere kontuan izanda hasiera-hasieratik erakutsi borondate ona eta dituzten materialak guztion esku uzteko prestasuna.

2. Lanerako prozedura

Hedabide bakoitzak duen datu-basean oinarrituta (EITBek eta *Euskaldunon Egunkariak* informatizaturik dute materiala), beharrezkoen iruditzen zaizkien hitzak zein diren eztabaidatu beharko lukete lehenik.

Ondoren, hitz horietako bakoitza eztabaidatzean hauek dira kontuan izan beharko dituztenak:

a) hitza zein testuingurutan erabiltzen den (eta horretarako dituzten errepesez baliatu beharko dute). Izan ere behin baino gehiagotan ez da hitza bera, sintagma osoa baino irtenbide egokia eskatuko duena. (*Caída* esateko *erorketa*, edo *eroriko* edo zer behar dugun eztabaidatzean, garrantzitsua da haiek esatea zein testuingurutan duten hitz horren beharra. Erdarazko “la caída del euro” esateko, ala “la caída de un ciclista). Izan ere, ezin dugu ahaztu euskaraz lan egin arren sarri asko erdaraz heldu zaien testua edo berria (edo dokumentala ...) euskaraz nola eman asmatu behar izaten dutela.

b) Proposatzen duten hitza hedabide guztiek erabiltzen duten ala batzuek bakarrik. Azken kasu honetan, lehiari dabilen formak, Hiztegi Batuko bigarren itzuliko irizpideen argitan aztertu beharko dituzte. Ahal bada, proposamen bateratua egin; eta, bestela, lehiakideak aurkeztu, bakoitzari erabilera-txostena erantsiaz.

c) Hitza euskal ondarekoa den ala ez. Euskal ondarekoa bada, OEHN egongo da ziurrenik, edo ahozko erabilerakoa bada, azpieuskalkiren batekoa izango da.

d) Hitza euskal ondarekoa izan arren, adiera berriren batean erabiltzea proposa dezakete. Eta hala balitz, hedabide guztiek hala egiten duten ala ez (edo nork bai eta nork ez) argi utzi beharko dute.

e) Hitza mailegua bada, oro har Hiztegi Batuko bigarren itzulirako onartu genituen irizpideen arabera jokatu beharko dute:

– maileguaren nazioartekotasuna neurtu

– oso hedatua ez bada, gutxieneko baldintza behintzat betetzen duen ala ez esan

– Iparraldean eta Hegoaldean forma desberdinak erabiltzen badituzte, guztientzat balio dezakeen forma proposatzen ahalegindu. Eta lortzen ez bada, alde bakoitzeko mailegua aurkeztu, izan duen erabileraren berri ematen duen txostena erantsiaz.

f) Beti ere argi utzi beharko litzaike lantaldeari dagokiola proposamena egitea; kontua ez dela erdal terminoen zerrenda osatu, eta Euskaltzaindiari galdetzea euskaraz nola esan behar diren.

g) Lantalde horretatik datozen proposamenak Euskara Batuko batzordeak eta euskaltzain osoek aztertu ondoren, argibide gehiagoren beharra ikusiko balitz, lantaldeari eskatuko litzaioke informazioa osatzea (nahiz honek ez duen baztertzen Hiztegi Batuko lantaldeari ere argibiderik eman dezakeen galdetzea).

Irizpide hauek begien aurrean izanik, eta lanerako hilabete batzuk emanaz, uste dut emaitza onak lor ditzakegula.